



BARREN
TOKIKOM

Munduko txapelketa begiz jota



**10
EGUN
KIA**

**ESKAITZA
EZIN HOBEAK**
Otsailaren
7tik 18ra



The Power to Surprise

NAIA CAR

Apalategi auzoa, 1
Eibar. Gipuzkoa

www.naiacar.com

Tel.: 943 70 70 33

Otsailaren 7tik 18ra aprobetxatu Kiaren 10 egunak, eskaintza ezin hobeak datoz-eta Kia gama osoan.

CO₂ emisioak, WLTP konbinatuak NEDC (g/km): 100-178. Emisio CO₂ konbinatuak WLPT (g/km): 121-202. WLTP (l/100km) kontsumo konbinatua: 4,6-8,9. Kontsumoaren errealizazioa baldintzak eta ezaugarriak www.kia.com eta www.kia.com webgunean. Penintsula, Ibaierentzako, Guterako eta Mallako kontrolosariaren sursan da balio eskaintza-harak. *Zantuzko Eiferre berreser-estalturaz.

Ongi etorri!

Eskerrik asko!
gurean izena
eman duzuen guztioi



943 74 44 41
elgoibar@elgoibarikastola.eus
www.elgoibarikastola.eus
elgoibar ikastola

SIEMENS WT46G210EE
ARROPA LEHORGAILUA



509€

40 minutuko programa azkarra.
Hezetasun sentisorea
Danborrak argiztapena du barruko aldean.

BALAY 3HB5358B0
LABEA



379€

7 Funtzio
Multiuntzioa
A
Errai teleskopikoak

SAMSUNG UE50NU7405U
TELEBISTA



599€

Smart TX WIFI - Voice interaction
4K - HDR 10+ (HLG)
2 USB
3 HDMI

MILAR BIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

Gremioen gida



GREMIOEN GIDA

Gidan agertzearen onurak!

21€
Nlean

21 Cren truke, hilero, zure enpresaren datuak
eta irudia erakutsiko ditugu BARREN astekarian.

12
aldiz urtean

BARREN astekaria da Elgoibar eta Mendaron
erakusleihu ikusiena.

4.885
die astero

4.885 ale banatzen ditugu
Elgoibarren eta Mendaron DOAN.

Eman bultzada euskarari eta lagundu gure
proiektua finantzatzen.


943 744 112 barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR



JUAN LUIS MUGERTZA

Idazlea

Akorduen akordua akordatzen



Akordatzen naiz umetan barraketa joaten ginela, eta txinbera hartu aurretik, Hungariatik-edo auskalo nondik etorritako gizon aspertuari gustukoa emateko esaten geniola, erpuarekin lagunduta: «Ez, hori ez; ezkerrekoa».

...pilota erre kara botatzen bazuten, Gerardok txanala hartu, eta arraunari eragiten ziola trebezia handiz, gu zubian begira, eta non zegoen esan bitartean: "Hor ez, sasieta!".

...Goragora, Bil el Niño, El Botas... tabernaz taberna txolinduta ibiltzen zirela,

eta inoiz mostradorearen gainean pistola uzten zutela jakiteko norik agintzen zuen.

...gure borroka lekuak Oraiko, Pelus, Dantzari... zirela, eta Euskadi taldeko ekipoak baino tropel handiagoa egiten genuela dantza eskatzeko, eta baikorrenek jasotako kalabazak kontatu egiten zituztela.

...Jeanetteren *Soy rebelde porque el mundo me ha hecho así*, edota Jane Birkinen *Je t'aime mon amour* entzutean, sabelean kilikiliak sentitzen genituela.

...herrian hiru zinema genituela, eta harroenak, neonezko argiak piztuta, Odeon zuela izena, eta batzuek sarre-

rarik ez ordaintzeko lurrean sakabanutako zati pusketak pegatu egiten zituztela.

...Garate eta Adon dendetan filmeen gaineko kalifikazioa erakuslehoetan jartzen zutela eta 1,2,3,4 zenbakiak erabiltzen zituztela. *La gata sobre el tejado de zinc* izenekoak 4 zuen.

...Lanbide Heziketako neskatxoek goiko solairuan marrazketa ikasten zutela eta mutikoen begiek eskailera mailetatik gora egiten zutela, batzuek minigona janzen zutelako.

...erroberan egitea oso txarra zela, bizkar hezurteko likidoa sikatu egiten zelako, eta makur-makur eginda, gelditzeko aukera zenuelako.

...Goiko Errotan lehenengo hildakoa uretan ikusi genuela, eta karramarroak, aingirak, barboak egoten zirela, baina San Lorentzoko errekan amuarrainak, eskailuak eta zarboak.

Akordatzen naiz Elgoibarrekin askotan akordatzen naizela.

*"Akordatzen naiz Goragora,
Bil el Niño, El Botas...
tabernaz taberna txolinduta
ibiltzen zirela"*



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Euzko Legeburuaren Argitalaritza

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuiztak atalean adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalao Amaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ander Soraluze, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegui, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:

ELGOIBAR
UROLA
KUNTZARENTZAT

LAGUNTZAILEAK:

MENDAKERO
2006

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► 2019KO UDAL AURREKONTUAK

Beste urteetan bezala, udal aurrekontua Udaleko botere gehiegikeriarekin onartu zuten. Udalbatza egin zuten abenduaren 20an, eta udaletxeko iragarkien tabloian iragarri zuten, baina ez webgunean eta ezta sare sozialetan ere. Gero, gardentasunari buruz hitz egitea gustatzen zaie.

Ahal Dugu/Podemos Elgoibartik dauzkagun datuen balorazioak bakarrik egin ditzakegu, eta dauzkagun datuak prentsan agertu direnak dira, gaur gaurkoz (otsailak 5) 2019ko aurrekontuak ez direlako agertzen ez webgunean eta ezta beste lekuetan ere.

Iaz Udalak herritarren parte-hartzea sustatzeko diru partida bat zeukan. Udaleko proposamenak egon ziren, baina herritarrenak ez, eta ez dugu uste gauzak horrela egin behar direnik. 200.000 euro gastatuko zituztela esan zuten, baina hori arden jarri dute martxan, eta zerbait berria izango balitz bezala salduko digute aurtengo aurrekontuetan. Bide batez, Urazandi eta Aizkorri auzoak batetzeko lanen (50.000 euro) lehen fasea hasi da eta ezin izan dugu ikusi enpresaren kontratazioa nola egin den.

Beste inbertsioei dagokienez, hiru laurdenak Hirigintzakoak dira. Hain behar gutxi ditugu elgoibartarrok? Zergatik arden ez dago gardentasunarentzat edo herritarren partaidetzarentzat euro bakar bat ere?

Gure ustez, Udalak jendearengandik hurbilago egon beharko luke, eta jendearen behar eta interesak kontuan hartu beharko lituzke aurrekontua diseinatzerako garaian.

Baldintza hauek ez dituzte kontuan hartu egungo udal ordezkariak, eta ondorioz, Udalaren 2019ko aurrekontuari uko egiten diogu.

Ahal Dugu/Podemos Elgoibar

► ESAN ADOSTASUNARI BAIETZ!

Otsailaren 23an GuraSOSek *Esan baietz adostasunari* manifestazioa egingo du (17:00etan Donostiako Antiguako tunetik hasiko da) Gipuzkoako Diputazioari, Foru Aldundiari eta alderdi politikoei, herritarrekiko errespetua eta duintasuna exijitzeko.

Manifestazio honekin Hitzarturen Berme Batzordeak 2018ko abenduaren 29an Gipuzkoako Ahdun Nagusiari eta Batzar Orokorreko presidenteari egindako eskaerarekin bat egitea eskatzen da, hain zuten ere Hitzarturen ordezkariarekin elkartzea, ehundutako prozesua eta emaitzak aztertzea, eta elkarlanerako bideak ireki ditzatela eskatzen da; beti ere hondakinen kudeaketa osasuntsua eta jasangarria helburu izanik, eta adostasun sozial zabaletan oinarrituta.

Era berean, Zubietako (Donostiako) erraustegian oinarritzen den Hiri Hondakinen Kudeaketa Planaren eztabaida eta onarpena gelditzea eskatzen du GuraSO-

Sek aipatutako elkarrizketa eta adostasun prozesua errazteko eta bideratzeko.

Guzti honen baitan GuraSOSek atxikimendu kanpaina bat jarri du martxan. Eragile desberdinek dagokien arloan landuko dute kanpaina eta jasotako atxikimenduen berri emango dute. Herritarroi ere, behatza gorantz duen eskuaren keinuarekin argazkia atera eta *Esan baietz!* aldarrikapenari atxikitzeke deia egin zaigu (GuraSOSeko webgunera bidaltzeko deia egin da).


Erraustegia martxan jartzeko alde bakoireko irtenbideak ez du ixten ezta bideratzen ere, inondik inora, gatazka. Are okerrago: 35 urteetarako luzatzen eta betikoratzen du.

Nik adostasunari bai, eta zuk?

A.I.Z



HONEY lastaira umeen garapen eta hazte prozesuan ezaugarri eta berezitasun guztiak kontuan hartzen duen bakarra da. 2 gune dituen lastaira izategatik desberdintze da:



1. gunea: urtetik 8 urteko umeentzako egokia



2. gunea: 8 urtetik gorakoentzako egokitzen den gunea.

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

▶ IMANOL CID CORTES

MUSHERRA

Musherra da Imanol Cid (Elgoibar, 1992), txakurrek tiratako leren gidaria. Txirringularitza mundutik ailegatu zen mushingera, eta kirol honetan urte gutxi daramatzen arren, pausoz pauso aurrera egiten dihardu. Lur gaineko Munduko Mushing Txapelketa du begiz jota orain. Lehiakorra dela dio eta lasterketetan gozatzen duela. Lasterketetara sasoi betean ailegatzeko, baina, txakurrak prestatzeko aurrelan handia egin behar da.

- ASIER ORBEA -

◆ Nola hasi zinen mushing deritzon txakur leren lasterketan parte hartzen?

*Kobirekin hasi zen dena, duela bost urte erosi nuen artzain-txakur aleman batekin. Txakur Kros (canicross) txapelketan lehiatzen hasi ginen. Txakur Krosa txakur-rekin korrika egitea da. Txakurrak arnes homologatua darama eta gu beti atzean goaz arnes batekin eta soka elastiko batekin, kolpeak arintzeko. Lotuta goaz eta batera antxitxika egiten dugu. Kobi eta biok segituan moldatu ginen lasterketetara eta postu onak lortu genituen hasieratik. Aurrenekoekin lehiari ibiltzeko, baina, berriek zebiltzaten arrazako txakurrekin lehiatzea ezinbestekoa zela konturatu nintzen. Hala erosi nuen nire estreinako txakur nordikoa: *Atila*. Alaskano arrazakoa da, pointer eta galgo nahasketa batekin. Txakurrok askoz azkarragoak dira ibilbide laburreko lasterketetarako husky, malamute edo samoiedo arrazako txakur nordikoak baino; horiek zeharkaldietan erresistentzia handiko animaliak dira.*

◆ *Atila* txakur-rekin ere Txakur Krosetan lehiatzen jarraitu zenuen?

Bai, eta Espainiako Txakur Kros txapelketa batean ere hartu genuen parte, Baqueiran. Zortzigarren postua lortu genuen arren, hortik gora sailkatu ziren parte har-



“Lur gaineko Munduko Mushing Txapelketa lehiatuko naiz Lituanian”

tzaileek sekulako erritmoa zutela ikusi nuen. Podiumera igo zirenak gai ziren kilometroa hiru minutu azpiko denbora azpitik egiteko. Prestakuntza handia eskatzen du horrek. Beste modalitate bat probatzea erabaki nuen orduan. Bizikleta mundutik nator ni eta txakurrari bizikleta lotuta lehiatzen hasi nintzen hurrengo den-

boraldian. Lur gaineko Espainiako Mushing Txapelketa ere hartu genuen parte. Negua ailegatu zenean, baina, beste txakur bat erosi nuen, eta hurrengo denboraldian bi txakurrek tiratutako patineteen modalitatean lehiatu nintzen, DS2 izenekoan. Eta hor jarraitzen dut. Bigarren denboraldia dut honakoa. Pausoz pauso egin

dudan ibilbidea izan da orain artekoa. Ikusi, probatu eta ikasi.

♦ **Eta zein da mushingean eman nahi duzun hurrengo pausoa?**

Batetik, lau edo sei txakurrekin lehiatzea da nire asmoa, hurrengo denboraldian ez bada aurreragokoa. Modalitate horietan dago 'benetako' mushinga. Europan kirol honetan lehiatzen den jendeak ez du ezagutzen bi txakurrek tiratutako mushing modalitatearik, eta munduko txapelketetan ere ez dago halako kategoriarik, ez behintzat elur gaineko txapelketetan. Lau, sei, zortzi, hamar eta hamabi txakurrek tiratutako txakur leren txapelketak daude. Bestetik, hurrengo urtean lur gaineko Munduko Txapelketan parte hartzea gustatuko litzaidake, bi txakurrek tiratutako patineteen modalitatean.

♦ **Non jokatu da Munduko txapelketa?**

Lituanian izango da, azaroan. Bidaia luzea da, 3.000 kilometro ingurukoa, eta errepidez egin behar da, ohitu gabe dagoen txakur batentzat arriskutsua baita hegazkinean bidaiatzea. Batzuk aztoratu

"42 kilometro orduko abiadurak ere hartzen ditugu entrenamenduetan"

egiten ditu hegaldiak eta lehiatzeari ere laga behar izan dioten kasuak ezagutzen ditut. Hortaz, ziurrenik, autokarabana bat partekatuko dut beste partaide batzuekin eta atoi handi batean eramango ditugu zakur guztiak. Oso ondo etorriko litzaidake babesle bat bidaia luze horrek eta txakurren elikadurak dituen gastuetarako. Eraitza nahiko onak lortu ditugu orain arte; hor dago gure palmaresa, hortaz, inor animatzen bada jar dadila gurekin harremanetan.

♦ **Hutsetik hasi zara. Zure kabuz ikasi dituzu ikasi beharrekoak?**

Alvaro Lopez Cobo musher kantabriarra izan dut gidari orain arte eginiko ibilbidean eta hartu ditudan erabakietan.

Asko irakatsi dit entrenamenduetaz, txakurren elikaduraz... Bera moduan neu ere Kantabriako Mushing Federazioan federatuta nago, azken hiru urteetan. Gipuzkoakoan ere egon nintzen federatuta, baina Kantabriakoan mimo gehiagoz tratatzen gaituztela ikusi dut, eta han jarraitzen dut.

♦ **Nolakoa da egiten dituzuen entrenamenduak?**

Zaldibar eta Elorrio inguruetara joaten gara, Aixola urtegiaren gainaldean dagoen mendiko pista batera. Batzbeste 28 eta 32 kilometroko orduko abiaduran ibiltzeko moduko pista egokia da; aldapatsua baina ez larregi.

♦ **Abiadura handia da 32 kilometro orduko.**

Bai, eta batz besteakoa da hori, 42 kilometro orduko abiadurak ere harrapatzen ditugu.

♦ **Zenbatean behin entrenatzen duzue?**

Hiru bat hilabete inguruko entrenamendua beharrezkoa da elur gaineko denboraldira sasoi betean ailegatzeko. Lau bat bider joaten naiz astean, irailaren bukae-



ran edo urriaren hasieran hasita. Eguraldiak baldintzatzen du noiz hasi gaitzkeen. 13 gradu baino gehiago badaude ezin dugu entrenatu, ez baita temperatura egokia txakurrentzat. Lasterketak ere bertan behera lagatzen dituzte 15 gradu baino gehiago badaude, txakurrak hiltzeko arriskuan ere egon daitezkeelako. Txakurrek daukaten dena ematen dute hasieratik eta ez dute gorputzaren gaineko kontrolik korrika hasten direnean; gidariak geldiarazi behar ditu. Segituan igartzen da bost gradurekin edo hamabirekin ez dutela berdin korrika egiten. Hotz gehiagorekin askoz azkarrago eta erosoago doaz. Hiru edo lau gradutan moldatzen dira hobekien. Halaxe diseinatuta daude.

◆ **Zenbat eta txakur gehiago eduki entrenamenduk desberdinak izango dira, ezta?**

Bai. Txakur Kroserako edo patineteen modalitaterako entrenamenduek ez daukate zerikusirik. Lehiaketan erabiltzen dugun patineteak 12 bat kilo pisatzen ditu, baina entrenamenduetarako 30-40 kilo inguruko scooter bat erabiltzen dugu. Erditik moztu eta soldatu dugun scooter bat moldatu dugu. Sei txakurretik aurrerako leretan Quad motorrak erabiltzen dituzte entrenamenduetarako, eta txakurrek aise mugitzen dute quadaren 300 kiloko pisua. Une honetan hiru zakurrekin ari naiz entrenatzen. Gazteena txakurkumea da oraindik, eta poliki-poliki sartzen ari naiz beste biek osatzen duten taldera. Garrantzitsua da ondo eramatearen diren txakur bikoteak osatzea eta entrenamenduekin lortzen da hori. Bateragarriak izan behar dute eta talde lanean aritu. Izan daiteke txakur bat oso azkarra, baina aginduak jasotzerakoan despistatu egiten bada, alferrik da. Zentratuak eta otzanak behar dute izan, eta energia handikoak aldi berean. Ezaugarri kontrajarriak diruditen arren, hori da lortu behar den oreka.

◆ **Atletak dira txakurrok. Elikadura berezia izango dute, ala?**

Txakurrentzako pentsua, haragi pixka bat eta gehigarri batzuk, –elektrolitoak eta antzerakoak–, ematen diz-



“Txakurrokin ezin da lehiatu edo entrenatu 13 gradu baino gehiago badaude”

kiegu, egiten dituzten ahaleginetatik errekueratzeko. Atleta profesionalak dira. Sprint erako probetan, txakurraren meritua da %80a eta %20a musherrera. Txakur krosean erdi eta erdi, batak zein besteak sasoi betean egon behar baitute. Patineteen modalitatean %70 da txakurraren meritua eta %30 musherrera. Eta, noski, zenbat eta txakur gehiago izan lan gehiago egin behar da guztiak zaintzeko eta elikatzeko. Sakrifizio handia eskatzen du zaletasun honek. Askotan entrenatzen dugu eguraldi txarrarekin eta desordutan ere bai, 23:00etan-eta: lanetik 20:00etan irteten naizelako; eta, batzuetan tenperatura hoztu arte itxaron behar dugulako.

◆ **Non gordetzen dituzu txakurrak?**

Azkue auzoan daukadan txoko batean. Kenell edo txakurtoki bat eraiki nahi dut zazpi edo zortzi txakurrentzako. Dirua balio du, ordea, eta ondo etorriko litzaidake Udalaren laguntza.

Sen handiko animaliak dira, ehiztariak, eta toki aproposa behar dute.

◆ **Pirena da txakur leren proba ezagunena Europa hegoaldean. Maite Barruetaña elgoibartarrak pare bat alditan hartu zuen parte orain dela urte batzuk. Erakartzen zaituzte halako zeharkaldi luzeek?**


Gustatuko litzaidake halakoren bat korritzea, bai, etorkizunean... Pirenako antolatzaileek, baina, lasterketa bertan behera lagatzeko erabakia hartu zuten 2012an. Gos Artic lasterketa da haren parekoa, indarra hartzen ari dena, distantzia ertaineko etapak dituen. Motelago doaz txakurrak, baina eritmo konstante mantendu behar da kilometro askoan. Gaur-gaurkoz nire txakurrak ez daude horrelako probetarako prestatuta, distantzia laburragoko lasterketarako eta eritmo bi-ziagoan korrika egiteko baizik.

◆ **Elur gaineko denboraldia hastera doa. Ze asmo dituzu?**

Lasterketarik ez dagoen asteburuetan Alto Campooko eski estaziora joango naiz elurretan entrenatzera. Lau kilometro eta erdiko zirkuitu bat dute han, mushingean ibiltzeko egokitu. Otsailaren 16 eta 17an Leonen jokatu den proba batean lehiatuko naiz. Gero, martxoaren 9-10ean Espainiako Txapelketan parte hartzeko asmoa dut, Baqueira Bereten. laz bigarren egin nuen.

Pello Rubio 'Txillarre'-k jaso du Landaola sarietako bat

Joan zen astean banatu zituzten Gipuzkoako landa garapenerako proiektuei errekonozimendua egiten dieten Landaola Sariak, eta horietako sari bat Pello Rubio *Txillarre* elgoibartarrak jaso zuen. Pertsona edo erakunde baten urteetako ibilbideari eginko errekonozimendua jaso zuen, hain zuzen ere, Pello Rubiok. Bere kasua ezohikoa da landa eremuan, eta hori ere kontuan hartu zuten saria ematerako orduan. 40 urterekin makina erremintatik nekazaritzarako saltoa egin zuen Pello Rubiok, eta hurrezkeroko 30 urtean aritu da nekazaritzari emana Elgoibarko Txillarre baserrian, "zailtasunei aurre egiten, hainbat erakundetan lan eskerga eginez, eta beti, begirada zorrotz eta kritikoa batekin, landa eremua hobetzeko helburuarekin", nabarmendu dute sari emaileek. Pello Rubiok erretiroa hartu berri du.



Arg.: Ander Salegi

Pello Rubio eta Landaolako presidente Ana Maria Eizagirre.

Bosko Eguna eta IMH Eguna ospatu zituzten joan zen barixakuan

Irakaskuntza ertaineko ikasleek eta irakasleek Bosko Eguna eta IMH Eguna ospatu zituzten joan den barixakuan, otsailaren 1ean, eta ohi duten legez, era guztiakoko lehiak eta jolasak egin zituzten IES Elgoibar BHI, Meka GLHBiko eta IMHko ikasleek jai giroan.

IMHn hainbat probaz osatutako ginkana modukoa antolatzen dute, eta aurten lehen mailako Mekatronika eleantza taldeak irabazi zuen proba. Horrez gain, parte hartzaileen artean hainbat opari zozketatu zituzten: pintxoak, opilak eta freskagarriak IMHko kafetegian, Malecon Zarautz Spa-n bi lagunentzako zirkuitua, zaldi gainean bi lagunentzako ibilaldia, urpeko baitaioa bi lagunentzat, paintball saioa, e.a. (*imh.eus* webgunean jarri dituzte probetako emaitzak eta opariaren irazleak).

Elgoibarko institutuko ikasleek ere hainbat lehiaketa antolatu zituzten Bosko Egunerako: patata tortilla lehiaketa, atletismoa Mintxetan, eskuba-



loia, sokatira... Antzerkiak eta musikak ere izan zuten tarte ospakizunean,

eta eguerdian Maalako parkean egin zuten bazkaria.

Transexualitateari buruz hausnartuko dute gaur Elgoibarren gurasoek

Aurten ere haur eta gazteen gurasoentzako formazio saioak antolatu dituzte Ongizate Sailak, Herri Eskolako Kalamua guraso elkarteak, Ikastolako Guraso Kontseiluak, eta Haurreskolako eta Arreiturre Institutuko gurasoek; eta lehenengo jardunaldia gaur egingo dute. Transexualitateari buruz hausnartuko dute oraingoan, Pasaiako Udaleko Berdintasun arduraduna eta Naizen Elkarteko kidea den Aitzole Aranetak gidatuta. *Haur eta gazteen transexualitate egoerak: sexu aniztasunaren balioa* izenburupean, transexualitate egoeran dauden adingabeko haur eta gazteek bizi duten egoera ulertzeko ezagutza, erreminta eta estrategiak landuko dituzte, besteak beste. Formazio saio honi esker gazte hauen gizarteratzean beharrezkoak diren balioak eskuratuko dituzte gurasoek, familian, hezkuntzan eta aisialdian erabilgarri izango direnak. Saioak helburu zehatzak ditu: Giza izate sexuala ezagutzera ematea, kontzeptu sexologiko orokorrak barneratzea eta transexualitatea ulertzeko kontzeptu egokiak eskuratzea. Kultur Etxeko sotoan izango da saioa, 18:30etik aurrera.

Udaltzainen lan-poltsa osatzeko deialdia egin du Elgoibarko Udalak



Zenbait agentek erretiroa hartuko dutela-eta, Elgoibarko Udalak gutxienez hiru udaltzain lanpostu eskaintzea aurreikusten du. Lan poltsan parte hartzeko baldintzak oinarrietan daude zehaztuta. Horien artean azpimarratzekoak dira adibidez, nahikoa izango dela Eskola Graduatua, Lehen mailako Lanbide Heziketa edo baliokide den titulua izatea eta ez dela adin mugarik izango. Gutxieneko altura bat eskatzen dute.

Oposizioari ariketen artean, Elgoibarko kaleen ezagutzaren inguruan galde-tuko diete hautagaiei, ariketa teoriko bat, proba fisikoak eta elkarriketa bat ere egingo dizkiete, besteak beste. Udaletik zehaztu dutenez, ez dute punturik emango aurrez udaltzain lanetan ibili izanagatik. Kaleak eta temarioa ikasteko dokumentuak elgoibar.eus webgunean eskuratu daitezke.

Eskaerak behar bezala beteta aurkeztu behar dira ondorengo leku hauetako batean, otsailaren 15erako: Herritarren Arreta Bulegoan (7:30etik 15:30era, astelehenetik ostiralera), Udalaren erregistro elektronikotik bidalita edo posta-bulegoetan (gutun-azal ireki batean aurkeztu behar zaio eskabidea postetxeko funtzionarioari, hark eguna eta zigilua jarri, eta ziurtatu ahal dezan epe barruan aurkeztu dela).

Yoga tailerra egingo dute domekan

Nalini Natascha Sas eta Mauricio Avilak yoga tailerra emango dute domekan Elgoibarko musika eskolan. Bi zati izango ditu tailerrak: 10:00etatik 12:00etara gong yoga saioa izango da, eta 12:00etatik 13:30era gong bainua egingo dute. Lehenengo zatian ariketa desberdinak egingo dituzte, arnasketa modu jakin batez lagunduta. Gong bainua, bestalde, meditazio sakonerako teknika da. Gong soinuak nerbio sisteman eragiten du, eta, besteak beste, erlaxazio sakon batean sartzen da gorputza. Tailerra bere osotasunean egin nahi duenak 25 euro ordaindu beharko ditu. Nahi duenak gong bainua bakarrik egiteko aukera ere badauka, 20 euro ordainduta. Informazio gehiago edo erreserba egiteko 638 080 275 telefonora deitu daiteke.

Emakumeen bizitza-zikloi buruzko jabe-kuntza tailerra astelehenean

Jabe-kuntza tailerren barruan, emakumeen bizitza-zikloi buruz hausnartuko dute. Oso ohikoak diren hainbat egoera planteatuko dituzte: *ezkontza noizko?* edo *Neska zahar geratuko zara!* bezalakoak entzun behar izaten dituzte sarri emakumeek, eta egoera horiei erantzunak ematen saiatuko dira. Loredi Salegik gidatuko du saioa. Kultur Etxean izango da, 18:00etatik aurrera, gazteleraz.

Palestinari buruzko hitzaldia, mezkitan

Sheikh Ahmed Shahruri Imanak Palestinari buruzko hitzaldia emango du domekan, mezkitan. Goizean umeentzako tailerrak egingo dituzte, eta 18:30ean izango da hitzaldia. Pedro Muguruza kaleko 85. poligonoan dago Mezkita, 8. atean.

▶ MANEX ALTUNA ▶ ION TELLERIA ▶ ARNAITZ GORRITI

‘GARA’ EGUNKARIKO LANGILEAK

Baltasar Garzon Espainiako Auzitegi Nazionaleko epailearen aginduz itxi zituzten ‘Egin’ egunkaria eta ‘Egin Irratia’ 1998. urtean. 4,7 milioi euroko zorra zuen ‘Egin’-ek. Bost urte geroago, 2003an, ‘Euskaldunon Egunkaria’ itxi zuten urte berean, zor hori ‘Gara’-rena egin zuen Garzonek, ‘Egin’-en eta ‘Gara’-ren artean enpresen ondorengotza ideologikoa zegoela ebatzita. Hamabost eguneko epea eman zion enpresari diru hori ordaintzeko, eta, geroztik, ordainketa etenaldian dago egunkaria argitaratzen duen enpresa. Orain, enpresak aurrekordioa egin du Gizarte Segurantzarekin, datozen bi urtean zor horren parte handi bat kitatzeko [hiru milioi euro inguru]. Eta ataka zail horretan, 10.000 harpidedun lortzeko erronkari heldu dio ‘Gara’-k, eta bilera irekia antolatu dute martxoaren 2rako, Kursaal (Donostia), harpidetzak lortzeko dinamikak herrietan abiatzeko. Guzti honi buruz hitz egiteko Elgoibarren bizi diren ‘Gara’-ko hiru langileak batu ditugu: Manex Altuna (Mungia, 1982), Ion Telleria (Idiazabal, 1982) eta Arnaitz Gorriti (Elgoibar, 1979).

- AINARA ARGOITIA -

◆ **Urtarrilaren 30ean 20 urte bete ziren ‘Gara’-k lehen zenbakia argitaratu zuenetik, baina ospakizuna golpetik ilundu da. Nola hartu duzue ‘Egin’-en zorra ordaindu behar izatea?**

Manex Altuna: Jakin bagenekien zor horren eskabidea egin zutela, baina hamabost urtean *stand-by* antzeko batean egon da gaia eta pentsatzen genuen, edo nik hala uste nuen behinik behin, bertan behera geldituko zela azkenean. Irailean, batzar batera deitu gintuzten langile guztiak eta han esan ziguten likidazioa saihestearren akordioa egin nahian ari zirela Gizarte Segurantzarekin eta ez zekitela horrek nola eragingo zigun ekonomikoki. Pasa den astean jakinarazi ziguten hitzarmena sinatu zutela eta hiru milioi euro ordaindu behar zizkiola enpresak Gizarte Segurantzari. Zer izango den ez dakigu, baina zailtasunak aurreikus genitzake.

Ion Telleria: Hamabost urteotan behin eta berriz ibili da gaia bueltaka eta esan gabe doa zorrak eragin zuzena izan duela enpresaren funtzionamenduan. Zor horrekin enpresa lotuta edo bahituta egon da, edozein inbertsio egiteko orduan nahiz bestela, eta egoera horretan bi aukera aipatu izan dira beti erredakzioan: bat txarra, orain gertatu den hau, eta bestea, okerragoa: zuzenean enpresa ixtea. Hogeitaz urte dira *Egin* itxi zutela eta hamasei bat Garzonek *Garari* 4,7 milioi euroko zorra egotzi zionetik, *Euskaldunon Egunkaria* itxi zuten urte berean izan zelako, baina gaurko



Manex Altuna, Ion Telleria eta Arnaitz Gorriti.

“‘Egin’-en zorra ‘Gara’-ri ordainaraztea bidegabekia da eta iraganeko logikan baino ezin da ulertu”

ikuspuntutik nork pentsatuko zuen ba beste egunkari bat ixten saiatuko zirela? Ez dugu ahaztu behar, gainera, 2009an, *Egin*-en itxiera baliogabetzat jo zuela Auzitegi Gorenak, nahiz eta ebazpen horrek ez zuen galarazi haren zorra *Garari* ordainaraztea. Bidegabeki itxi zuten *Egin*, zuzendaritza taldekoak espeteratu zituzten eta ondarea deuseztu, baina zorra hor dago.

Arnaitz Gorriti: Damoklesen ezpata lepo gainean izan dugu beti, eta orain ere hor dago itxieraren aukera hori. Hasiera batean, 4,7 milioi euroko zor bat hamabost eguneko epean ordainarazi nahi zioten enpresari. Baldintza hori jarri zioten *Garari*, jakinda ezingo zuela bete. Eta etsi-etsian jo zuen enpresak Gizarte Segurantzara akordio hau sinatzera. Ez da irtenbide onena, jakina, gauzak ondo joanda ere urteak emango ditugulako honi buelta ematen, baina beste aukera, behin betiko ixtea, askoz zen txarragoa. Gainera, ez dezagun ahaztu beste antzeko proiekturen bat sortuko balitz ere, zama horrekin jaioko litzatekeela, estatuak ez duelako erakusten soka lasaitzeko asmorik. Beraz, bai, zor hau ordainduko dugu epaile batek ebatzi duelako hamabost urtean ezin duela enpresa batek ordainketa etenaldian egon, baina geure onerako ere, zor hau lehenbailen kitatu behar dugu. Bahiketa bat da hau, azkeneko batzarrean esan ziguten bezala, eta bi aukera dauzkagu: bahituta jarraitu edo nola-hala erreskatea ordaindu, libre izan ahal izateko. Zorra ordaintzea kolpe latza



izango da, baina egoera hau baliatzen jakin behar dugu, eragileekin elkarrizketak hasi eta gutxienez sektorearentzako babes handiagoa eskatzeko.

♦ **Milaka lagunek emandako ekarpenari esker lortutako kapitalarekin sortu zen 'Gara'. Garzonek, baina, jarraikortasun ideologikoa ikusi zuen.**

Ion: Asmakizun juridiko hutsa da hori. Egin-en zorra ordainaraztearen oinarrian bultzada politikoa dago, garbi. Enpresa batek zorra ordaindu ezin duenean, kiebra jotzen du normalean eta enpresa talde horrek berak beste enpresa bat sortzeko aukera izaten du, edo bestela, zorraren kitapen bat negoziatzen du enpresak, beti ere kargu hartu ahal duen neurri batean, eta ez Garzonek egin zuen bezala. Gainerako enpresei ematen zaien tratamenduaz oso bestelakoa eman diote *Garari*. Zorra *Garari* ordainaraztea bidegabekoa da eta iraganeko logikan baino ezin da ulertu. 2003ko testuinguan bakarrik uler daiteke hau, *Egunkaria* ixtera ausartu ziren garaiko testuinguruan, Euskal Herriko disidentzia politikoaaren kontra egiteko edozerk balio zuen garaiko testuinguruan.

Manex: Alferrik dira hemen azalpen juridikoak. Garzonen sindura du honek, baina honen guztiaren atzean estatu espainola dago. Edozer egin dezake, zigorgabetasun osoz.

♦ **Zein da 'Gara'-ren apustua?**

Ion: Iragan garaiei eusten diete batzuek, baina horren kontra, aurrera begira jartzeko apustua egin du zuzendaritzak. Hamabost urte hauetan erresistentzia giro batean egon gara, eutsi eta eutsi, eta orain ere aukera geneukan bide horri heldu eta diru-eske huts bat egiteko, baina apustua beste bat izan da. Krisi iraunkorren dago kazetaritza eta gogotik saiaturia ari gara denok, baina urte hauetan ere ahalegindu gara oinarriak jartzen etorkizunerako: trantsizio digitala egin dugu, negozio-eredua ere aldatu dugu... Zorra garai bateko eskemaren logikan datorren arren, uste dut honi erantzuten asmatzen badugu oinarri sendoak jarriko ditugula etorkizunerako. Hori bai, ez dakit nondik aterako ditugun milioi erdi euro sei hilero!

♦ **Eta sei hilero ordaindu beharreko kopurua lortu ezean, zer?**

Ion: Lehengora bueltatuko gara: 4,5 milioi euroko zorra hamabost egunetan kitatu beharrera.

Arnaitz: Eta atzera bueltatze horrek itxiera esan nahi du.

♦ **Eta nola ikusten duzue etorkizuna epe motzean?**

Arnaitz: Aurrera egiteko gai izango garela uste dugu, Iñaki Sotok egunotan esan duen bezala proiektua bideragarria delako. Bestela, bideragarria ez balitz edo enpresa-arduradunek argirik ikusiko ez balute, ez zuketean aurreakordio hau sinatuko. Ez luke izango zentzurik Gizarte Segurantzari hiru milioi euro ematea, bost urte barru proiektua bideragarria izango dela ikusi ezean. *Gara* ez da izango proiekturik irakurriena edo publizitatea errazen ekartzen duena, baina kualitatiboki bada hedabide garrantzitsu bat, kontrasterako. Askotariko informazioak aberastu egiten du gizartea eta neurri batean jendeak ulertu du hori: *Gara* ere behar dugula kioskoan. Ixtera behartuko bagintuzte ere, egongo litzateke sektore bat, eta ez txikia, ahots baten falta igarriko lukeena.

Manex: Momentu zailetatik indartsuago irten izan gara sarri eta oraingoan ere indartuta irtengo garelakoan nago.

♦ **Espoliazio hitza dabil egunotan sare sozialetan erruz. Zer duzue esateko jasotako babesaren inguruan?**

Ion: Ni neu harritu naiz, eta onerako. Kazetaritzaren Euskal Herriko mapan topatu dezakegun espektrora osoak salatu du eta goiburua guztietara eramanean dute auziaren bidegabekoa [Tokikom osatzen duten 66 hedabideek ere salatu dute, tartean *BARRENEK* ere bai]. Prentsa askatasunaren aldeko mezua zabaldu behar dugu: denei ez zaie zertan gustatu *Garak* kontatzen duena, neri ere ez zaidalako zertan gustatu beste hedabide batzuek esaten dutena, baina denak behar ditugu kioskoan.

Arnaitz: Jendeak ulertu du gaur guri tokatu zaigula baina bihar beste bati toka dakiokela, gustatzen ez zaiena isildu beste helbururik ez dutelako hauek. Muntaiak juridiko bat izan da hau.

♦ **Asmoa enpresa normal baten modura aritzea dela esan du Iñaki Sotok, baina ez du zehaztu ordainketek nola eragingo dizuen langileoi. Zer giro dago erredakzioan?**

Ion: Egoera berezi batean etorri da hau: erredakzioan lan egiteko sistema aldatzeko ahaleginean ari garenean, Internetekoa indartu nahian gabiltzanean eta *Garak* izan duen hizkuntza-ereduan zizela sartuta *Naiz* euskara hutsezko irratia sortzera goazenean. Lehen esaten genuen apustua egiteko zer nolako harriztarra zen zorra, eta orain, gainera jausi zaigu. Aldi berean, baina, bagekien ezin gurela apusturik egin zorrarekin. Beraz, errealtaterak ekartze bat izan da hau.

Arnaitz: Harriztarra erori zaigu gainera, baina guk badaukagu zeregina, injustizia salatzeaz gainera: kazetari lana ondo egitea.

Ion: Erreskatea ordaintzera goaz uste dugulako gure proiektuak balio duela. Herri honek merezi dituen edo landu dituen baliabideak ditu, eta ez da kasualitatea Euskal Herrian daukagun eskaintza komunikatiboa izatea. Garbi daukagu *Garak* hori egon behar duela, baldin eta gizarteak haren beharra ikusten badu, eta uste dugu dagoeneko esana duela baietz, behar duela.



Oles egiten

Aterik ate, ohitura zaharrak berritzen jardun dute egunotan Elgoibarren eta Mendaron. Euri eta txingorrari aurre eginez, zapatuan irten ziren kalera Etxegiña taldekoak eta Mendaroko taldekoak. Astelehenean, berriz, Santa Ageda bezpera egunean, Elgoibarko Izarrako lagunek koplatu zituzten Elgoibarko baserri-auzoak. Elgoibarko Izarrakoen eskea berezia izan da aurtten, 25 urte bete dituelako elkarteko kideek ohitura zahar hori berreskuratu zutenetik. Diruz oso aberats egon ez arren, ezta rriz sano daudela erakutsi zuten guztiak. Bi orriotan bildu ditugu argazki batzuk. Argazki gehiago ikusteko: www.barren.eus



Elgoibarko Izarra



Elgoibarko Izarra



Elgoibarko Izarra



Elgoibarko Izarra



Etxegiña



Etxegiña



Etxegiña



Etxegiña



Mendaro



Mendaro



Mendaro



Mendaro

'La Traviata' opera emango dute gaur, Herriko Antzokian



Verdiren *La Traviata* opera ezaguna emango dute gaur iluntzean Herriko Antzokian, aurrez grabatutako formatuan. Richard Eyre zuzendari eta musikari britaniarrak zuzendutako bertsioa eskainiko dute. Eyrek 1994an Londresko Royal Opera House antzokian zuzendu zuen estreinakoz *La Traviata* obra, eta gerora bertsio gehiago egin ditu. 1852an Alexandre Dumasek idatzi zuen *La dama de las camelias* liburuan oinarrituta dago opera. Violeta Valery gortesana da protagonista, bere maitaleagatik edozer egiteko prest dagoen emakumea. Operak hiru akto ditu. 20:30ean hasiko da emanaldia.

Idazlan lehiaketa antolatu du Elgoibarko Udalak

Gazteek euskaraz idazteko ohitura sustatzeko asmoz, bigarren idazlan lehiaketa antolatu du Elgoibarko Udalak. 8 eta 18 urte bitarteko elgoibartarrek hartu dezakete parte, eta bakoitzak nahi duen gaia aukeratu dezake. Testuak euskaraz idatzita egon behar du, eta originala izan beharko da, norberak sortutakoa. Saritan, 50 euro eta 120 euro bitarteko 26 bono banatuko dituzte, herriko dendetan gastatzeko. Lanak A4 neurrian, orriaren alde batetik idatzita eta ordenagailuz aurkeztu beharko dira, LH3 eta LH4 mailetan salbu, hauen kasuan idazlanak eskuz idatzita bakarrik onartuko dira.

Parte-hartzaileek Ikastetxeetako ikasgeletan aurkeztu beharko dituzte idazlanak eta Ikastetxe bakoitzak, lehen hautaketa egin ondoren, lanak Udalean aurkeztu beharko ditu, martxoaren 15a baino lehen. Elgoibartik kanpoko Ikastetxeetan ikasten ari diren ikasleek, berriz, zuzenean entregatu beharko dituzte lanak Udaleko Kultura Sailean (Kultur Etxean) 9:00etatik 14:00etara.

Elgoibarko dantzariak Villabonako Aurreku Txapelketan izan dira



Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolako hiru ikaslek Villabonako Aurreku Txapelketan hartu zuten parte domekan. Amaia Sasiainek 2004 eta 2005 urteen artean jaiotakoan sailean hartu zuen parte, eta Malen Galarraga eta Jon Etxeberria 2006-2008 urteen artean jaiotakoetan. Arduradunek esandakoaren arabera, oso ondo dantzatu zuten hirurek eta gustura itzuli ziren egindako lanarekin. Hurrengo saioa Beasainen jokatuko dute, otsailaren 23an eta 24an.

Yoga eta mindfulnes tailerrak antolatu dituzte Kiribilduz egitasmoaren barruan

Familiaren hizkuntza transmisioa lantzeko helburuarekin yoga eta mindfulnes tailerrak antolatu ditu Atxutxiamaikaren Kiribilduz egitasmoak. Otsailaren 17an eta 24an HH4-5eko familientzako saioa izango da, eta martxoaren 23an eta 24an, berriz, LH1-2 mailako ikasleen familientzako. Hiru orduko saioa izango da, eta bi ataletan banatuta egongo da: lehenengo ordu eta erdian guraso edo tutoreentzako saio teorikoa eskainiko dute, eta bigarren zatian saio praktikoa egingo dute guraso edo tutoreek umeekin. Naiara Mandalunizek gidatuko du saioa. Plazak mugatuak dira, beraz, ume bakoitzarekin guraso edo tutore bakarrak parte hartu ahal izango du. Tailerra euskara hutsean izango da, baina euskaraz ez dakitenek ere hartu dezakete parte.

Apirilean, bestalde, askatasunaren pedagogiaren inguruko prestakuntza saioak eskainiko dituzte, eta, maiatzean, jolas eta kanten ikastaroa. Azken bi saio hauek gurasoentzako izango dira. Informazio gehiagorako 943 741 626 (Nerea) telefonora deitu daiteke.

'Linbo planeta' familia antzerkia emango dute domekan Herriko Antzokian

Dejavu Panpin Laborategiak *Linbo Planeta* antzez-lana taularatuko du domekan, Herriko antzokian. Familia osoarentzako obra da. Inork oroitzen ez duen leku batean girotuta dago antzez-lana, zaborrez



eta etxe baten hondakinez inguratutako leku urrun batean. Gerrak atzean utzitako hondamendia izan daiteke, edo agian errefuxiatuen kanpamendu izandako lekua. Gizaki bakarra bizi da: Numa, 8 urteko neskatila. Bakarrik bizitzera ohituta dago, hondamendiaren erdian bere bizilekua sortzea lortu du eta tarteka jasaten dituen erasoekin bizirauten ere ikasi du. Aspaldian aspertzen hasia da, ordea, lagunak, familia eta ia oroitzen ez duen bere herria falta dituelako. Goiz batean, baina, sekula jolasteaz aspertuko ez den lagun bat azaldu zaio, Ibrahim txakurra. 16:30ean hasiko da emanaldia. Sarrerak 10 euro balio ditu (Gazte Txartelarekin, 7 euro).

Vulk taldearen kontzertua, barixakuan

Sinuosek antolatuta, Vulk taldeak kontzertua emango du gaur zortzi, Kultur Etxeko sotoan. Vulk taldea Bilbon sortu zuten lau lagunek 2015ean. Ingalaterrako post-punk-etik zuzenean edaten duena da, bai estiloan, jarreran eta baita posean ere. 23:00etan hasiko da emanaldia.



Diplomak jaso dituzte IMHko Ingeniaritza Dualako lehen promozioetako ikasleek

Prozesu eta Produktu Berrikuntzan Ingeniaritza Gradu Dualaren 2015-16, 2016-17 eta 2017-18 promozioetako ikasleek gradu amaierako diplomak jaso zituzten IMHn. EHUri atxikitutako lehen hiru promozioak izan dira hauek. Ekitaldian hainbat erakundetako ordezkariak hartu zuten parte: Ane Beitia Elgoibarko alkateak, Agustin Erkizia EHUko Gipuzkoako campuseko errektoreordeak, Miren Artaraz Eusko Jaurlaritzako Unibertsitateetako zuzendariak, Garikoitz Agote Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapenerako zuzendariak eta Ixaka Egurbide, IMHko Ingeniaritza Dualaren Unibertsitate Eskolako zuzendariak. Diplomak jaso ostean, Amaia De Castro ikasle



ohiak hitz egin zuen ikasle guztien izenean, eta urte hauetan hil diren ikasleak ere ekarri zituen gogora. Ekitaldia amai-

tzeko Garikoitz Mendizabal txistulariak eta Aitor Furundarena soinu-joleak musika saioa eman zuten.

Sanbartolomeetarako proposamenak

Kultura Sailak aurten ere ireki du San Bartolome jaietako egitaraua osatzeko proposamenak jasotzeko epea. Nahi duenak, otsailaren 20ra arteko epea dauka proposamenak egiteko. Interesatuak kultura@elgoibar.eus edo arreta@elgoibar.eus helbidera bidali ditzakete proposamenak.



Kirol egitarau bete-betea izango du Elgoibarrek aurten Europako Kirolaren Herria izendapena ospatzeko

Elgoibarren 2019an egingo diren kirol jardueren egutegia aurkeztu zuten martitzenean udaletxean. Era askotariko 64 kirol ekintza antolatu dituzte *Elgoibar Europako Kirolaren Herria 2019* izendapena ospatzeko. "Herritarrekin eta izendapena posible egin duten kirol-talde eta elkarrekin ospatu nahi dugu 2019an Elgoibar Europako Kirolaren Herria dela", adierazi zuen Elgoibarko alkate Ane Beitiak. "64 ekitaldiz osatutako zerrenda luzea begiratzea besterik ez dago konturatzeko Elgoibarko kirola bizi-bizi dagoela. Asteburuero partida ugari bat jokatzen dira Olaizagan, Mintxetan edo Ikastolako frontoian, baina, horiez gainera, 64 kirol ekintzaz osatutako egutegia izango dugu 2019an Elgoibarren. Sekulakoa da", nabarmendu zuen agerraldian Udal Kirol Patronatuko zuzendari Ramon Mujikak. Ekitaldi gehienak herriko kirol taldeek urtero antolatzen dituzten ohiko ekintza eta jarduerak dira; beste batzuek, aldiz, bereziagoak dira.

Festa handia, ekainaren 22an

Izendapena ospatzeko antolatutako ekitaldi nagusia ekainaren 22rako antolatu dute. Herrian egiten diren kirol guztiak edo ia denak kalean erakustea nahi dute egun horretan. "Herriko kaleak eta plazak kirolez bete nahi ditugu ekainaren 22ko festan", azaldu du Mujikak.

Boxeo jaialdia

Ekainaren 8an Olaizaga kiroldegiko kantuan egingo duten boxeo jaialdia izango da beste berezitasunetako bat. Lau edo bost borrokaldi izango ditu jaialdiak, eta nagusia Ixa Rodriguez boxeolari solaruzetarrak egingo duen borrokaldia izango da.

Rodriguez hainbat urtean Udal Kirol Patronatuko monitore izandakoa da eta boxeolari profesionala da gaur egun.

Udal Musika Bandaren kontzertu berezia

Kirol ekitaldiak ez izan arren, kirolarekin zerikusia dutenak izango dira batzuek. Udal Musika Bandak irailaren 22an emango duen kontzertu berezia izango da horietako bat. "Kirolarekin zerikusia duten piezak joko dituzte eta ezustekoren bat edo beste prestatzeko asmoa ere badute", aurreratu du Mujikak. Atal elkarteak Trinitate jaietan antolatzen duen nagusien danborradan ere izango du lekua Europako Kirolaren Herri izendapenak.

Nazioarteko futbol txapelketa sanbartolomeetan

C.D. Elgoibarrekin elkarlanean nazioarteko futbol txapelketa bat antolatzeko asmoaren berri ere eman du Udal Kirol Patronatuko zuzendariak. Jubenil mailako futbolarietzako txapelketa izango da eta Ingalaterra eta Portugalgo talde bana ekartzeko asmoa dute. "Lau talde batu nahi ditugu Mintxetan abuztuaren 22an. Ohorezko mailan diharduen Realaren taldeak baieztatu du parte hartuko duela, eta Espainiako talderen bat ere ekarri nahi dugu".

Lau Nazioen eskubaloio Txapelketa

Goi mailako eskubaloiaz gozatzeko aukera ere izango da, beste behin ere. Emakumezkoen eskubaloioko Lau Nazio Txapelketa hartuko du Elgoibarrek ekainaren 1ean eta 2an.

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, ekintza gehiago antolatzeko asmoa dute, zenbait hitzaldi, adibidez. *barren.eus*-en ikus dezakezue 2019ko kirol egutegia osorik.

Iker Calvo igerilariak urrezko hiru domina irabazi ditu eskolarteko Gipuzkoako Txapelketan

Bi igeriketa txapelketa jokatu zituzten aurreko asteburuan Bergarako Agorrosin igerilekuan: Gipuzkoako Neguko Infantil Txapelketa eta Eskolarteko Gipuzkoako Txapelketa. 300 igerilari baino gehiago aritu ziren lehian. Iker Calvo igerilari elgoibartarrak eskolarteko txapelketan hartu zuen parte eta emaitza bikainak lortu zituen. Eibar Igerixan taldeko kideak urrezko hiru domina irabazi zituen. Bi lasterketa irabazi zituen 200 metroko proban, bizkar estiloan eta estilo librean. Ehun metroko lasterketan irabazi zuen hirugarren urrea, estilo librean.



150 igerilarik hartu zuten parte igeriketa erakustaldian



Igeriketa Erakustaldiaren zazpigarren ekitaldia egin zuten aurreko zapatuan Olai-zaga kiroldegian. 150 igerilarik hartu zuten parte Elgoibarko Igeriketa Taldeak antolatutako jardunaldian: igeri taldean diharduten ehun umek eta Master taldean dabiltzan 50 igerilari inguruk. Ume zein nagusiak 50, 100 eta 200 metroko igeriketa probetan aritu ziren erakustaldian.

Emaitzak

FUTBOLA

Haundi 2 – Aretxabaleta 2
Aretxabaleta 3 – Elgoibar 1 (Oho. jub.)
Zarautz 6 – Elgoibar 1 (Jub. 1.maila)
Tolosa 1 – Elgoibar 1 (Oho. kad.)
Elgoibar 3 – Sanse 1 (Kad. 1.maila)
Elgoibar 2 – Danena 1 (Oho. inf.)
Ikasberri A 1 – Elgoibar 3 (Inf. 1.maila)
Tolosa 3 – Elgoibar 2 (Inf. Txiki)

ESKUBALOIA

Lauko 21 – Basauri 27 (Sen. emak.)
Alcorta F.G.. 23 – Helvetia Anaitasuna 26 (Kad. mut.)
Labarra Taberna 27 – Pizzeria Salento 25 (Sen. giz.)
Corazonistas 28 – Gaurve 24 (Senior giz.)
Astigarraga GYS 21 – Zuazo 22 (Jub. nesk.)
Deca 19 – Zarautz 22 (Jub. mut.)
Arilan 27 – Bergara 19 (Jub. nesk.)
Beristain 24 – Zarautz 17 (Jub. mut.)
Bidasoa Irun 27 – Salento Gelati 30 (Kad. nesk.)
Corazonistas 28 – Urkunde Elg. 28 (Kad. mut.)
Aiala 26 – Neurri Elg. 24 (Kad. nesk.)
Aiala 16 – Tecnifuelle 15 (Kad nesk.)
Arrasate 23 – Bankoa Elg. 24 (Kad. mut.)
Bera Bera 25 – Karakate 22 (Kad. mut.)
Legazpi 21 – Cimde Elg. 18 (Inf. nesk.)
Dario elg. 23 – Urola 18 (Inf. nesk.)
Bacalao Alcorta 16 – Ereintza 12 (Inf. nesk.)
Bidasoa Irun 8 – Pneumax 25 (Inf. nesk.)

Agenda

ESKUBALOIA (Olai-zaga)

Zapatua, 9
10:00 Cimde Elgoibar – Dario Elgoibar (Inf. nesk.)
11:15 Bankoa – Urola (Kad. mut)
13:00 Karakate jatetxea – Bidasoa (Kad. mut.)
16:00 Deca – Bidasoa Irun (Jub. mut.)
17:45 Astigarraga GYS – Tximista Pulpo (Jub. nesk.)
19:30 Gaurve Elgoibar – Conet Miranda (Sen. giz.)
Domeka, 10
10:00 Neurri Elgoibar – Carpinteria Baskongadas (Kad. nesk.)
11:30 Salento Gelati – Basauri (Kad. nesk.)
13:00 Pizzeria Salento – Urnieta (Sen. giz.)

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 9
10:00 Elgoibar – Eibartarrak (Inf. 1. maila)
12:00 Elgoibar – Zarautz (Oho. kad.)
16:00 Elgoibar – Hernani (Jub. 1. maila)
Domeka, 10
10:30 Elgoibar – Aloña Mendi (Futbol Eskola 2008)
12:30 Elgoibar – Aloña Mendi (Oho. jub.)

LANA.....
Eskaerak

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan.
☎ 632 786 952

Lan bila nabil. Orduka edo etxeko lan-
gile moduan aritzeko prest nago.
☎ 632 737 903

Adinekoak edo umeak zaindu eta gar-
biketa lanak egiteko prest nago. Espe-
rientzia. ☎ 644 602 818

Lan bila nabil. Baserri lanetan, ostalarit-
zan eta garbiketa lanetan esperientzia
handia. Erreferentzia onak ditut.
☎ 631 680 819

Adinekoak edo umeak zaindu eta gar-
biketa lanak egiteko prest nago. Espe-
rientzia eta erreferentziak ditut.
☎ 633 150 376

Adinekoak zainduko nituzke. Formazio
eta esperientzia ditut. Titulu sozio-sanita-
rioa daukat. ☎ 671 989 434

Lan bila nabil. Esperientzia handia dau-
kat ostalaritzan eta etxeko lanetan.
☎ 612 223 298

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta
etxeko lanak egiteko prest nago.
☎ 605 598 999

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta
etxeko lanak egiteko prest nago. Or-
duka ere bai. ☎ 675 965 130

Adinekoak zainduko nituzke. Etxeko lan-
gile moduan aritzeko prest nago. Espe-
rientzia handia. ☎ 612 490 124

Adinekoak zainduko nituzke. Orduka
ere bai. ☎ 626 407 923

Zaintzaile euskalduna eskaintzen da adi-
nekoak zaintzeko. Tituluduna.
☎ 685 729 790

Adinekoak zainduko nituzke.
☎ 631 667 099

Adinekoak zainduko nituzke. Orduka
edo etxeko langile moduan.
☎ 631 470 506

Ume zein nagusiak zaintzeko eta garbi-
keta lanak egiteko prest nago.
☎ 653 667 975

Umeak zein nagusiak zaintzeko prest
nago. Asteburuetan ere bai. Erreferen-
tzia onak. ☎ 636 517 025

Lanerako prest nago. Umeak eta adine-
koak zaintzen esperientzia handia.
☎ 632 642 350

Garbiketarako egiteko edo adinekoak zain-
tzeko prest nago. Esperientzia.
☎ 602 084 256

Umeak zein nagusiak zaintzeko prest
nago. Esperientzia.
☎ 631 145 986

Nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak
egiteko prest nago.
☎ 631 724 921

Umeak zein nagusiak zaintzeko prest
nago.
☎ 632 392 251

Adinekoak zainduko nituzke. Orduka
eta asteburuetan.
☎ 632 229 972

Ume zein nagusiak zaintzeko eta garbi-
keta lanak egiteko prest nago. Orduka
edo etxeko langile moduan.
☎ 632 452 026

Adinekoak zainduko nituzke. Orduka
eta asteburuetan.
☎ 612 531 623

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak
egiteko prest nago. Esperientzia handia.
☎ 616 457 254

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak
egiteko prest nago. Esperientzia handia.
☎ 631 729 476

Etxeak garbituz edo nagusiak zainduz
egingo nuke lan. Orduka aritzeko prest.
☎ 602 490 595

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest
nago. Esperientzia handia menpekota-
suna dutenak zaintzen eta etxeko lanak
egiten.
☎ 646 113 239

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak
egiteko prest nago. Arratsaldean.
☎ 638 338 816

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak
egiteko prest nago. Orduka.
☎ 643 323 088

Umeak edo adinekoak zainduko ni-
tuzke. ☎ 612 463 096

Umeak zein nagusiak zaintzeko prest
nago. ☎ 653 667 975

Umeak zein nagusiak zaintzeko prest
nago. Ospitalean ere bai.
☎ 631 822 545

Baserri lanetan edo eraikuntzan jardue-
ko prest nago. Esperientzia handia
daukat.
☎ 644 849 206

Garbiketa lanak egiteko edo etxeko lan-
gile moduan jarduteko prest nago. Titu-
lazioa daukat.
☎ 626 407 923

Adinekoak zaindu edo beste edozein
lan egiteko prest nago.
☎ 651 195 167

Eskaintza

Taxi lizentzia traspasatzen da jubilatze-
agatik. ☎ 669 895 592

BESTELAKOAK.....

Lursail bat erosiko nuke mendian.
☎ 607 143 616

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu.
Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.
Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) -
22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€.
Iragarkiarri erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) -
20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€.
Iragarkiarri erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.

administradores Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas
Entidad Pública Administradora para el Empleo



ROSA Mª PINTADO

*Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen ardu-
raduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gi-
puzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta
Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentzia-
tua. Kolegiatu zenbakia: 749*


660 969 679
rosapf@telefonica.net

**Gure garaje komunitateko jabeak batzuek traste-
lekuak egin nahi dituzte marraz zedarritutako euren
garaje-plazetan. Jakin nahiko nuke ia garajeak itxi di-
tzaketen.**

Jabetza Horizontaleko Legean jasota dago solairu berriak
eraikitze edo eraikinaren kanpoaldeko konfigurazioa alda-
tzeko aukera. Horren barruan sar ditzakegu, beraz, terrazak
ixtea. Halakoak egiteko, baina, baimen administratiboa
behar da. Hau da, ezinbestekoak dira obrarako Udalaren bai-
mena eta egin beharrekoa eskatutako baimen horretara lot-
zea eta jabetza pribatu berririk ez sortzea. Horrez gain,
komunitatearen onspena ere beharko da, jakina.

Garajeak ixtea garajeen jatorrizko konfigurazioa aldatze-
aren barruan ulertu behar da, eta beraz, jabeakideen batza-
rrak onetsi behar du obra hori.

**AHOLKUA: Obra hori egin ahal izateko, Udalaren
baimena izatea ezinbestekoa da eta komeni da go-
goraztea zenbait udalerritan debekatuta dutela
garaje-plazak ixtea.**





Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Jakes**, astear-
tean 4 urte egin
zenituelako. Mu-
xuk familiako
guztien partez.



Gure etxeko txi-
kiak 3 urte! Zori-
nak etxekoen, eta
bereziki, Jareren
partez. Muxu po-
tolo bat.



Zorionak gure
etxeko kapitainari,
otsailaren 2an 5
urte potolo egin zi-
tuelako.



Zorionak, **Jare**,
7 urte egin dituzu-
lako. Patxo handi
bat etxekoen, eta
bereziki, Aratz,
Ibai eta Lierren
partez. Prestatu
zure eguna topera
ospatzeko!



Zorionak, **Arai**,
7 urte egingo ditu-
zulako. Ondo
pasa domekan.
Muxu bat familia-
koen partez.



Zorionak,
Malen! 10 urte
handi dagoe-
neko! Muxu po-
tolo bat etxeko
guztion partez.



Zorionak, **Leire!**
7 urte handi! Segi
horrelaxe, neska!



Zorionak,
Beñat! Eta baita
Koldo eta Alaz-
neri ere! Oso
ondo pasa zure
urtebetetze egu-
nean.



Zorionak gure mutil handiei! **Julenek**
urtarrilaren 19an 9 urte egin zituen, eta
Aimarrek ostegunean 5 egingo ditu.
Patxo handi bana familiakoen partez.



Zorionak **Sare eta Auritz**, etxeko
bihurrirei, otsailaren 10ean 2 urte
egingo dituztelako. Patxo potolo bat
etxekoen, eta bereziki, osaba Anderren
partez.



Zorionak, aita-ama, aitiitiita-amama, zuen
ezkontzaren 60. urteurrenean. Mila kilo
muxu, familiako guztion partez.

PINTURA ETA DEKORAZIOA
CORDON VILARCHAO
cordonvilarchao@telefonica.net
San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26
943 740 570 / 636 98 61 62

IKASBAI
AKADEMIA
IKASGO
ACADEMY

- INGELES ESKOLA ERREFORTZUA
- CAMBRIDGE AZTERKETAREN PRESTAKUNTZA
- IRAKASKUNTZA PERTSONALIZATUA
- TALDE TXIKIAK

667 261 248
(Leire)

Basarte 13, behea - Elgoibar
akademlaelgoibar@gmail.com

FPB 183112

40.
urteurrena
UZURI
optika audio

ELGOIBAR - DEBA

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel.: 943 740 359

www.uzurioptika.com

2019ko kanpaina berezia!
Uzuri Optikak 40 urte bete ditu. Hilean egindako erosketarekin sari baten zozketan sartuko zara. Parte hartu!

➤ Otsaileko eskaintza:
2 x 1
haurren kristaletan
* Kontsultatu baldintzak

➤ Otsaileko zozketa:
Herschel motxila

Aurreko hilabeteko sarituak:
Amaia Mugerza
Nekane Zabala
Ainhoa Jaio

8 BARIKAKUA

18:30 Gurasoentzako formazioa: *Haur eta gazteen transexualitate egoerak: Sexu aniztasunaren balioa*. Antolatzaileak: Kalamua guraso elkarte, Arreiturre eta Haurreskolako gurasoak, Ikastolako Guraso Kontseilua eta Ongizate Saila.

20:30 Aurrez grabatutako opera: *La traviata*. Herriko Antzokian.

9 ZAPATUA

12:00 Herri Batzarra. Legealdiko balorazioa egin eta etorkizunerako ekarpenak egingo ditu Mendaroko EHBilduk. Jubilatuen alboko lokalean.

15:30 Garagardoa egiten ikasteko ikastaroa, Motxaila Beer ekoizleekin. Mendaroko Gaztetxean. Izena emateko: 669 037 088. Lapikoa eraman behar da.

10 DOMEKA

10:30 Umeentzako tailerrak. Mezkitan.

11:00 Gong yoga saioa. Nalini Natascha Sas eta Mauricio Avilak eskainiko dute. Musika Eskolan. Izena emateko: 638 080 275

16:30 Antzerkia: *Linbo planeta*. Herriko Antzokian.

18:30 Hitzaldia: Sheikh Ahmed Shahruri Imanak Palestinari buruz hitz egingo du. Mezkitan.

11 ASTELEHENA

18:00 Emakumeentzako jabetza tailerra: Emakumeen bitzita zikloaren aurrerak. Berdintasun Sailak antolatuta, Loredi Salegik emango du saioa. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

13 EGUAZTENA

18:00 Mahaingurua: Oier Etxanizek idatzitako *Itsasoan Barrena* liburuaren harira, gazteak eta minbiziari buruzko mahaingurua antolatu du Gazte Asanbladak. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

14 EGUENA


17:00 Ipuin kontalaria: Peio Añorga. 5 eta 6 urte bitarteko umeentzat. Udal Liburutegian.

15 BARIKAKUA

18:30 Erakusketa: *Gizakia koloretan*. Haizea emakume taldeak eta Berdintasun Sailak antolatuta, Kultur Etxean egongo da ikusgai hilaren 28ra arte.

20:30 Antzerkia: *Último tren a Treblinka*. Herriko Antzokian.

23:00 Kontzertua: *Vulk*. Sinüosek antolatuta, Kultur Etxeko sotoan.



I. URTEURRENA

Maria Luisa Suinaga Azcarate Ascasua

208ko otsailaren 10ean hil zen, 88 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan,
otsailaren 9an, 19:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.




I. URTEURRENA

Jose Miguel Azkoitia Artetxe

2018ko otsailaren 6an hil zen, 57 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, barixakuan, otsailaren 8an, 19:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

Beti gure bihotzean



Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK		Egunez: 09:00-20:00	Iluntzean: 20:00-22:00	Larunbatak: 9:00-14:00 (*)			
8 BARIXAKUA	9 ZAPATUA	10 DOMEKA	11 ASTELEHENA	12 MARTITZENA	13 EGUAZTENA	14 EGUENA	15 BARIXAKUA
Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez	Egunez *Ibañez *Etxeberria	Egunez Garitaonandia	Egunez Etxeberria	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti
Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean *Ibañez	Iluntzean *Ibañez	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Yudego	Iluntzean Garitaonandia
* Fernandez: Herriko enparantza 4, Garagartzta (Mendaro) 943 756 142		* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) 943 751 638		* Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) 943 751 384		Urte guztian, gauetz: 22:00-09:00 Zulueta. San Agustin kalea, 5 (Eibar) 943 820 498	

Zinea (Herriko Antzokian)

'El gran baño

9 zapatua: 19:00 / 22:15

10 domeka: 19:00

11 astelehena: 21:30

Urtarrilan hildakoak

- **Jesus Muguruza Larrañaga**
94 urte, urtarrilak 1
- **Sebastian Andonegi Gabilondo**
90 urte, urtarrilak 4
- **Silvino Santos Diez**
74 urte, urtarrilak 5
- **Jesus Urizar Artolazabal**
69 urte, urtarrilak 7
- **Vicente Soto Hernandez**
72 urte, urtarrilak 7
- **Braulio Sahagun Sanchez**
89 urte, urtarrilak 9
- **Narciso Caballero Caballero**
83 urte, urtarrilak 10
- **Jose Fernandez Gorostiza Jimenez de Aberasturi**
90 urte, urtarrilak 14
- **Isolina Lucas Santos**
81 urte, urtarrilak 16
- **Francisco Sota Allende**
88 urte, urtarrilak 17
- **Maria Teresa Juaristi Larrañaga**
76 urte, urtarrilak 17
- **Julio Mauleon Martinez**
89 urte, urtarrilak 22
- **Agustin Unamunzaga Unamunzaga**
91 urte, urtarrilak 25
- **Maria Esther Mugertza Idiakez**
60 urte, urtarrilak 27



ETXEBERRIA

EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)

635 756 295

629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com
www.funerariaetxeberria.com

Kutxak, trasladoak eta koroak.
 Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
 Erietxe zentruetan zerbitzuak.

▶ Euskaraldiaren argi-ilunak

Euskaraldia ariketa sozialaren estreinako edizioak eman duenaren lehen balorazioa egin eta bigarrenari begira jarri dira Elgoibarko Euskaraldia Taldekoak. Ahobizi eta belarriprest dinamikari oinarrituko da Euskaraldiaren bigarren edizioa ere, eta norbanakoekin eta entitateen hizkuntza praktika berria bultzatzeko egingo da. Norbanakoekin batera, entitateak, erakunde publiko eta pribatuak, herrietako elkarteak edota enpresak izango dira, besteak beste, bigarren edizioko protagonistak. 2020an izango da.

Lortutakoak

Euskaraldia, 11 egun euskaraz ariketa soziala, hizkuntza-ohiturak aldatu eta euskararen erabilera areagotzeko inoiz sortu eta egin den ariketarik jendetsuena eta arrakastatsuenaren izan da, eta horrenbestez, balorazio "oso positiboa" egin du Elgoibarko talde eragileak ere, uste baitu ariketak ondorio "asko eta onak" lagako dituela Elgoibar euskalduntzeko bidean. Arrakastaren adierazleetako bat da parte-hartzea, eta hor aise gainditu ziren antolatzaileek egindako aurreikuspenak. 1.803 lagunek eman zuten izena, eta ariketak elgoibartarren onespina jaso zuen. "Elgoibartarren hizkuntza-kontzientzietan eragitea lortu du Euskaraldiak eta hizkuntza-ohituren gaineko gogoeta ere ekarri du". Horretarako, jakina, ezinbestekoa izan da ariketarekin bat egin zuten herriko 54 elkarte eta erakundeen parte-hartzea eta haien arteko elkarlana.

Zuzendu beharrekoak

Hutsune batzuk ere identifikatu ditu, hala ere, Elgoibarko Euskaraldia Taldeak. Ariketan izena eman zutenetatik 1.245 lagunek ahobizi rola aukeratu zuten, eta 558k belarriprest rola. Desoreka handia izan zen, eta horregaitik rolak ondo ulertu ez ziren errezeloa dute talde eragilekoak.



Euskaraldiari ongi-etorria egiteko ekitaldiko argazkia.

Uste dute norberaren jarrera edo jokaerari lotuta beharrean hizkuntza gaitasunari lotuta ikusi zituela jende askok rolak. Era berean, ahobizi eta belarriprest txapak behar baino gutxiago bistaratu zirela uste dute. Ariketa ikusgarriago eta errazagoa egiteko markak ziren txapak, baina nahi baino gutxiago ikusi zituzten sustatzaileek.

Herritarrek ariketa ondo ulertu eta barneratu ote zuten kezka ere azaldu dute. Hizkuntza-ohiturak euskararen alde mugiarazteko ariketa da Euskaraldia, eta ez euskararen alde gaudela esateko ekimena, baina zalantza dute mezua zabaltzean asmatu ote zuten. Horregatik, autokritika egin dute: "Jendearren formazioari eta ariketaren alde kualitatiboari arreta handiagoa eskaini behar genion beharbada". Azkenik, gazteen parte-hartzearen gaineko kezka agertu dute. 16 eta 30 urte arteko 308 gaztek parte hartu zuten Euskaraldian (parte-hartzaileen %17), eta gehiago nahi zituzten.

Galdetegiko erantzunak

Elgoibarren izena eman zutenei zazpi galderako galdetegiak egin zieten sustatzaileek eta 330 erantzun jaso zituzten.

Hona hemen galdetegi horrek emandako ondorio garrantzitsuenak:

- ◆ Parte hartu zutenen %88 gustura sentitu ziren ariketak iraun zuen 11 egunetan. %12k bakarrik izan zituen nekeak edo beldurrak.
- ◆ Hamarretik zortzik beti edo ia beti eraman zuten txapa paparrean.
- ◆ Ahobizi izan zirenen %83k euskaraz egin zieten euskaraz ulertzen zuten denei edo ia denei. %17k, berriz, batzuei bai, baina beste batzuei ez.
- ◆ Ahobizi izan zirenen %76k euskaraz egin zien lehen hitza ezezagunei. %24k, berriz, batzuei bai, baina beste batzuei ez.
- ◆ Belarriprest izan zirenen %74k aitortu dute euskaraz dakiten gehienek euskaraz egin zietela. %26k, berriz, esan dute lehendik egiten zietenek edo batzuek bakarrik egin zietela euskaraz. Belarriprest izan zirenetatik %56k euskaraz egiteko eskatu zieten gaztelaniaz zihardutenei. Gainerakoek erantzun duten txaparekin nahikoa izan zitzaizela edo ez zietela ezer esan gaztelaniaz egin zietenei.
- ◆ Galdetegiaren beten dutenen artean, %83k uste dute hemendik aurrera euskaraz gehiago egingo dutela Euskaraldia ariketari esker.

KIRIBILDUZ EGITASMOAREN



FAMILIENTZAKO ESKAINTZA



TAILERRAK

HH4-5 bitarteko umeentzako eta euren familientzako tailerra
Emaille: Naiara Mandaluniz


Otsailak 17 eta 24, DOMEKAK. 10:00-13:00
Mindfulness eta yoga
20€ bikoteko/*bazkideek, 18€

LH1-2 bitarteko umeentzako eta euren familientzako tailerra
Emaille: Naiara Mandaluniz

Martxoak 23 eta 24, zapatua ETA DOMEKA
10:00-13:00
Mindfulness eta yoga
20€ bikoteko/*bazkideek, 18€

Izen ematea: otsailaren 8ra arte

PRESTAKUNTZA



Askatasunaren Pedagogia
Emaille: Ane Ablanedo
20€ pertsonako/*bazkideek, 18€

Apirilaren 5ean, barixakua,
18:00-20:00 saio teorikoa+
21:00ak arte pintxo-tertulia.
Apirilak 6, zapatua
10:00-13:00

Izen ematea: martxoak 11-17

Curso de juegos y canciones
para padres y madres
que no sepan euskera

4 de mayo, sábado. 10:00-11:30
gratis

Jolas eta kanten ikastaroa

Maiatzak 4, zapatua. 11:30-13:00
Doan

Izen ematea: apirilak 8-14

Izen ematea: www.elgoibarkoizarra.eus web-orrian edota Elgoibarko Izarraren bulegoan.

*Bazkideak: Elgoibarko Izarrako bazkideak



“Metodologiatik, seihileko bakoitzaren proiektua eta ebaluazio jarraitua nabarmenduko nituzke”

Ibai Galarza (20 urte, Elgoibar) Industria Antolakuntzako Ingeniaritza gradua ikasten ari da Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoan. 3. mailan dago, Arrasateko campusean.

❑ Zergatik aukeratu zenuen Industria Antolakuntzako Ingeniaritza gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatean?

Hasieratik, nahiko argi nuen ingeniaritza bat egin nahi nuela, baina zer gradu, eta zer unibertsitate aukeratzea zen arazoa. Mondragon Unibertsitateak emandako hitzaldi batzuk eta gertuko gomendio batzuk entzun ondoren egin nuen aukeraketa. Ikasteko metodologia eta kurtsoan lantzen ziren irakasgaiekiko interesa izan ziren aukeraketaren arrazoi nagusiak.

❑ Nola balioetsiko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Orain arte bizitako esperientzia niretzako positiboa eta lagungarria izan da. Hasieran, dena berria da, ereduak, ikaskideak, irakasleak... eta batxilergotik dagoen ezberdintasuna ere nabaria da. Baina, denbora pasa ahala, eta ikastaroari erritmoa hartu ostean, nahiko eramangarria egiten da. Aipatzekoa da ere irakasleekiko dagoen gertutasuna; adibidez, zalantzak argitzeko orduan laguntzeko prest daude eta honek gradu osoan zehar asko lagundu dit.

❑ Nola definituko zenuke Goi Eskola Politeknikoan jasotzen duzun ikasteko metodologia?

Goi Eskola Politeknikoan erabiltzen den ikas-

teko metodologia oso aproposa iruditzen zait. Bezeziki metodologiaren bi puntu nabarmenduko nituzke: seihileko bakoitzean irakasgai guztiak batzen dituen proiektua eta ebaluazio jarraitua. Proiektuetan oinarritutako irakaskuntzak, klasean ikasitakoa praktikan jartzea ahalbidetzen du, kasu errealak aztertuz eta talde lana sustatuz. Ebaluazio jarraituak, aldiz, seihileko osoan konstantzia exijitzen du, azterketa partzialak egiten baitira, eta irakasgai guztia azterketa bakar batean sartzea saihesten da.

❑ Unibertsitatetik zer da gehien gustatzen zai-zuna? Badu zerbait hobetzeko?

Orokorrean instalazioak ondo daude. Gainera kirol programa bat daukagu ikasleei bideratuta. Horrela, ikasteaz gain, ikaskideekin harremana sustatzen da kirola praktikatzuz. Hobetze aldera, nire aldetik, ordutegia aldatuko nuke eta klaseak beti goizeko ordutegian jarri. Hau horrela izanda, erraztasun gehiago izango genituzke ikasketak gainerako jarduerekin uztartzeko.

❑ Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?

Printzipioz gradua amaitzea da orain dudan helburua. Hala ere, behin gradua izanda, master batekin nire ikasketak osatzea ez dut baztertzen.